

215. zk.

Bigarren aroa

Urriak 15  
2013

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

## Erreportajeak


Ola sagardotegia:  
heldu den sagardoa



Arg: Guilló

## Kirolak

Ayamendi Gimnasia  
Erritmikoko Kluba



Ander Arzak, ETBko kazetaria

“Hedabideen kontrol ideologikoa  
geroz eta handiagoa da”

- 4 Trena Irunera iritsi zela 150 urte bete dira
- 6 Inkesta: euskararen erabilera Irunen
- 7 Mintzalaguna, euskaraz beldurrik gabe
- 8 Kirolak. Donibane Lohitzune - Hondarribia lasterketa
- 11 Haurren leihoa. Dunboa LH
- 12 Gazteen lanak. Txingudi BHI
- 13 Gaztea. Irunabarrek eta Kabigorrik bertso-gauak antolatu dituzte

[www.irunero.com](http://www.irunero.com)  
Sar  
zaitez  
web orrian eta  
Facebooken




# Baseclick

Ekitaldi gastronomikoen antolaketa ▶  
Komunikazioa ▶ Ikuskizun artistikoak

[www.baseclick.es](http://www.baseclick.es)



baseclick







Xabier Kerexeta

Gaurgero baten batek erantzungo dit: idatzi egiten baduk, "irakurri, mesedez" beharko duk, eta ez entzuteko eskatu. Bada, horixe bera etortzen zait neuri burura Irungo tren geltokian mugitzen diren letra gorri argitsuz osaturiko kartela ikusten dudana aldiro. Erdarazko atención señoresen euskal bertsioa da. Hortik aurrera badu euskaraz akatsik; baina tira, larriegirik ez, euskaldunok zeinen gaizki ohitu garen kontuan harturik. Egia esan, okerrago ere izan zitekeen. Batetik, mezua ahoz ematekoa balitz (seguruenik hartara prestatu zen, eta gero idatzira zuzenean pasa) ez legoke batere gaizki, alderantziz: baten batek euskaraz esateko pentsatu du mezua, itzulpen hutsa egin gabe!; bestetik, señores hori jaun-andreak ez baina jaunak itzultzea ere bazuten, eta zuzenean kendu egin dute.

Beharrik!

Ez zatekeen lehen aldia izango erdaraz gaur egun zaharkiturik -besterik ez esatearren- dauden esamoldeak

## Entzun, mesedez

euskaraz are larriago geratzea. Gogoan dut duela ez hain aspaldi Txingudi Ikastolan zabalduetako hiruhileko bazkarien programan (eta catering enpresa Arrasatekoa denez, ziur aski Euskadiko hainbat eta hainbat tokitan) erdarazko "los hijos" euskaraz "semeak" itzuli zutela. Euskaldunon artean beti kexatu behar duenik falta izaten ez denez, norbait kexatu omen zen, zeren eta hurrengo ikasturtean erdaraz "los hijos e hijas" jarri baitzuten. Imajinatzen dut eszena: euskarazko gutun bat iritsiko zen bulego batera; batek ireki, euskaraz zegoela ikusi eta beste bati, beharbada kanpoko itzultzaile bati, erdaratzeko eskatu. Erdaraz irakurri eta, nola ez, genero kontuetan Euskal Herriko erdalunak oso sentiberak direnez gero, zuzentzeko agindua eman.

Hori bai, euskaraz "semeak" jarraitu zuen. Izan ere, nori pasako zitzaion burutik gaiak euskararekin inolako zerikusia izan zezakeenik? Nori pasako burutik euskara ez dela erdararen kalko hutsa, bere ezaugarriak dituela? Oraindik ere, eskerrak eman beharko, hasierako bertsio hartan "los padres" "aitak" ez baina "gurasoak" itzuli zutelako!

Hamaika entzuteko jaioak gara.

Viteri ikastetxea atzo



IUA: 38808

Justizia jauregia gaur



## Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba  
[agrijalba@irunero.com](mailto:agrijalba@irunero.com)

Kirolak: Naiara Hernandez  
 Lekuona

Euskara zuzentzailea:  
 Xabier Kerexeta

Publizitate kudeatzaileak:  
 Sonia Garcia Olazabal,  
 Lara Cañizo

[lara@irunero.com](mailto:lara@irunero.com),  
[sgarcia@baseclick.es](mailto:sgarcia@baseclick.es)

Argitaratzailea:  
 Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:  
 SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -  
 20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

[www.irunero.com](http://www.irunero.com)

VITERI ikastetxea Pedro Viteri Aranaren diruz eraiki zen XX. mendearen hasieran, Iparralde hiribidean, gaur egun Justizia jauregia dagoen orubean. 1984an eraitsi zen. Goiko argazkia 1971koa da. Orduan eskola oraindik erabiltzen zen.

Nor zen Pedro Viteri?

Arrasaten jaioa 1833an, Biarritzen zendu zen 1908an. Seme-alabarik gabeko dirudun filantropoa izan zen. Hirurogei urte zituela, jarrera erroto aldaztea erabaki zuen; halaxe, aberastasunak bere herria eta, oro har, Gipuzkoa modernizatzeko baliatu zituen. XX. mendearen hasieran hainbat ikastetxe eraiki

zituena; tartean, Irungo eta Hondarribiko Viteri eskolak.

Garaiko gizartearen arazoetako bat formakuntza eskasa zenez, klase sozial guztietako ikasleei zuzendutako proiektua abiarazi zuen, non baliabide ekonomiko urriko familiek lehenetasuna zuten. Hezkuntzarik aurreratua eskaini zitzaien, maila jasoa zuten irakasleen eskutik.

Eskola haietako gobernu-organoetan ez zegoen apaizen ordekaririk. Viteri Frantziatik zetorren, eta han kleroak aspaldi ez zuen esku hartzen hezkuntza publikoan.

Honako erakunde hauek Irunero diruz laguntzen dute:



# “Kazetaritza gaizki dago: gerra-kronika batengatik 80 dolar ordaintzen direla, lekuko”

Hogeita hamaika urte betetzeko atarian dagoen irundar hau kazetari goiztiarra da, ez bairik gabe. Hamasei urte zituela lehendabidizkoz jarri zen kamera baten aurrean Txingudi Telebistan eta ordutik bidelagun izan du objektiboa.

Kazetaritza maite duelako penaz ikusten du nola kontrol ideologikoak informazioa zapaltzen duen.

**- 16 urte zenituela kamera baten aurrean jarri zinen, eta harrapatu zintuen.**

Ordurako interes puntu batekin begiratzen nuen telebista. Aurreago konturatu nintzen, telebistarekin baino gehiago, kazetaritzarekin harrapatuta sentitu nintzela.

**- Baina antzerkiak ere erakartzen zintuen.**

Bai, ikastolan aritu nintzen, baita institutuan ere. Antzerkiak beti erakarri nau, baina profesional moduan aritzeko, ez.

**- Aurkezle eta antzezle lanetan bada nolabaiteko lotura.**

Bai, antzerki eta interpretazio puntu bat dauka nire lanak.

**- Egiten duten guztia ongi egiten duten horietakoa zara?**

Ez! Alor profesionalean oso diziplinatua naiz, eta inplikazio handikoa. Alor pertsonalean, ordea, ez naiz batere konstantea!

**- Txingudi Telebistatik Antena 3ra salto egin eta bertan beste irundar batekin topo egin zenuen.**

Bai, Lourdes Maldonadorekin. Biak Txingudi TBn lankideak izan ginen aurretik. Berak animatu ninduen neurri handi batean kazetaritza ikastera. Oso gustura aritu nintzen beti berarekin, kazetari ona iruditzen zaidalako.

**- 2005ean ETBren deia eta...**

**aurkezle lanetan lehen esperientzia. Zer oroitzapen duzu?**

Abantaila neukan, esperientzia pixka bat banuelako. Aldaketa handia izan zen euskaraz lan egitea, ordura arte batik bat gaztelaniaz egin izanagatik. Gainera, albistegietako hizkuntza ez nuen behar bezain ongi menperatzen. Bi hizkuntzetan lan egin beharra ez da samurra, eta hori jendeak kanpotik ez du ikusten.

**- Eta, halako batean, zuzendaritzaren deia Parisera berriemateko. Susmatzen zenuen?**

Susmo txiki bat

neukan, aurretik galdegin zidatelako ea fran-tsesez eta ingelesez hitz egiteko gai nintzen. Jaime Otamendi informatiboetako zuzendariak deitu ninduean, *zer egingo ote nuen gaizki?* pentsatu nuen. Proposatutako zidanean bertigo puntu bat sentitu, baina zailtzarrik ez nuen egin.

**- Parisen zu bakarrik, sekulako erronkaren aurrean.**

23 urte besterik ez nituen! Beste hedabideetako korreponsalekin idazkaritza partekatzen nuen. Oso harreman ona genuen, eta hari esker nahiko babestua sentitzen nintzen. Esan liteke lankideak aldi berean lagunak eta familia zirela.

Lana erruz egin nuen: disponibilitatea 24 ordukoa zen, asteko 7 egunetan, eta gainera irratirako eta telebistako hainbat progra-

## Ander Arzak, ETBko kazetaria



matarako.

**- Zu ETBn hasi zinenetik aldaketa politikoak eman dira. Zer nabaritu duzu?**

Aldaketa handia nabaritu dut ETBren erabilera politikoaren inguruan. Beharbada hasieran ni ez nintzen jabetzen. Pena bat da. 5 puntu izeneko ekimen bat sortu zen tresna politikoa izan ez zedila eskatzeko. Euskal Herri osora zabaldu zen ekimena, baita sektore askotara ere, baina ez zuen aurrera egin.

Telebista publikoetan askotan gertatzen da politikariek beren zerbitzura dagoen tresna dela uste dutela. Horrek kalte egiten

die denei.

**- Zein da kazetaritzaren osasuna?**

Oso gaizki dago: krisiak gehien jotuen sektoreetako bat da. Adar askoko krisia da. Publizitatearen eta baliabide ekonomikoena ez da bakara. Eragina izan du Interneten garapenak: edozeinek edozer komunika dezake eta hori kalitatearen kaltetan joan da. Lan baldintzei dagokienean ere gauzak gero eta okerrago daude. Adibide esanguratsua ipiniko dut: gerrako korreponsal bat bere kronika baten truke 80 dolar besterik ez dituela eskatzen entzun nuen. Maila politi-

koan geroz eta kontrol ideologiko handiagoa dago eta geroz eta hedabide-kontzentrazio handiagoa.

**- Bilbo, Paris eta Irun. Sorterria aukeratu duzu.**

Hiri horiek ezagutu ondoren Irunen bizitzea erabaki dut. Ez da herrixka bat, ezta hiri handia ere. Irun oso ondo dago.

Beste hiri batzuk ezagutu ondoren, esango nuke Irunen gehiago dibertitzen ikasi beharko genukeela. Konturatu naiz beste herrietan ekintza sinpleak antolatzen direla eta hemen baino arrakasta handiagoa dutela. Ez dut ikusten herri giroa dagoenik.



**- METODOA: K-STRETCH®**  
**- METODOA: HIPOPRESIBOA®**  
**- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)**  
**- PILATES**  
**- PILATES HAURDUNENTZAT**

[www.kineesis.net](http://www.kineesis.net)      [www.k-stretch.net](http://www.k-stretch.net)

Arantzateko Jauna kalea, 10. behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



# Dena prest trena Irunera iritsi zela I50. urteurrena ospatzeko



Ezkerrean, tabernako eszena. Eskuinean, garaiko Irungo goi mailako pertsonaiak.



Trena Irunera iritsi zela I50. urteurrena ospatzeko, urriaren 20an kaleko antzerki herrikoia egingo da San Migel auzoan. Dena prest dago Irun irauli zuen garraio bide berria herriak nola hartu zuen gogoratzeko.

Agintariak, kleroa, gizon-emakume burges dotoreak, mi-keletoa, trenbidea eraiki zuten langileak, baserritarrak, emagalduek... 1863. urteko Irungo gizartea ordezkatzen duten pertsonaiek parte hartuko dute datorren igandeko berregintza historikoan, guztiak ere herriko boluntarioak izaki.

Ana Perezek idatzi du gidoia, historiari buruzko Mertxe Trancheren aholkuak jarraituz. Dramatizazioa 10:00etan hasiko da, trenaren etorrera iragarriko duen pregoilari baten eskutik. Segizioa 11:30ean Udaletxetik San Migelera abiatuko da, alkatea eta zinegotzi batzuk barne. Zerbait eszenaren bidez urte haietako gizartearen giroa antzetzeko da: garraio bide berriaren iritsiera nola ospatu

zen eta, edozein berrikuntza legez, herritarren artean eragin zituen aldeko eta aurkako iritziak.

Berregintzaren azken entsegu orokorra San Migelen egin zen joan den larunbatean. Irunen lehen aldiz egiten den jarduera hau prestatzeko, hilabete batzuk dira batzorde bat lanean ari dela. "Dena primeran atera da, jendea hasieratik inplikatu da, gogoz ari da, umorez, gainera!", esan zuen Ana Perezek.

Guztira 100 bat lagun arituko dira: Banda, Eraikiko dantzariak, pertsonaia nagusiak eta figuranteak. Entseguak, paperen banaketa, jantziek nola izan behar duten zehaztu... Maria Jose Barral San Migeleko auzotarren elkarteko presidentea, berebiziko lana gora behera, oso pozik dago ekimenak jasotako erantzunarekin, eta irundarrak "datorren igandean emaitza ikustera etor daitezela" animatu nahi ditu.

## Egitaraua

**11:00etan**, harrera Irungo Udaletxean  
**11:30ean**, Udaletxetik segizioa aterako da: agintariak, banda, txistulariak... trenzubia pasa arte.  
**12:00etan**, antzezpenen hasiera, Geltoki kalean.  
Amaiera San Migeleko plaza txikian, **13:00etan**.



Emagaldu bi.



Ana Perez zuzendaritza lanetan.

Eskuinean, tren ez joango diren lehenengo bidaiariek bi. Ezkerrean, tabernako borrokaren eszena:



Herritar burges talde bat.



# Heldu den sagardoa

Ola Sagardotegiko nagusi Iñaki Bengoetxeak aurten 90.000 litro egitea espero du, bere lurretan dituen 2.000 sagarrondoetako fruituak baliatuz. Udazkenak epel jarraituz gero, sagardo ona aterako delakoan dago. Eusko Labela lortu izanak saltzen lagundu dio; ez, ordea, liztor asiaticoen, erlauntzak kaltetzen dituzten izurritea baitira.

## - Sagar biltetan hasi zarete Olan. Zenbat litro sagardo egingo duzue aurten?

130.000 kilo sagar biltzea aurreikusita daukagu. Aurten 90.000 litro egitea espero dugu, aurreko urteetan baino pixka bat gehiago. Arrazoia da gure sagardoa ongi saldu dugula.

## - Eusko Labela izateak lagundu du? 2011tik Eusko Labela dugu; hau da, %100ean zertifikatua da. Horrek bermatzen du, besteak beste, bertako sagarrez egiten dugula sagardoa.

Zalantzarik gabe, produktua bultzatzen lagundu digu, eta espero dugu gehiagora joatea. Hori da bidea bertako produktuen kontsumoa sustatzeko.

## - Nolakoa izango da datorren urtean edango den sagardoa?

Sagarrak ez du oraindik behar adina azukre, baina urrian zehar eguraldi onak jarraitzen badu, hau da, euri gutxi eta giro epela, dena konponduko da.

Udaberrian oso eguraldi txarra egin zuelako lehenengo lorea hondatu zen. Beterrin (Oria Beherea, Uru-mea, Oiartzun eta Bidasoa bailarak), ordea, azken loreak fruitua

eman zuen.

Dena atzeratuta dator, baina ematen du sagardo ona izango dugula.

## - Iaz Gipuzkoako Sagardo Lehiaketako txapelduna izan zinen. Horren bultzada ere nabaritu duzue?

Bai, zalantzarik gabe horrek saltzen laguntzen du, bai kanpoan bai sagardotegian ere; jendearengan jakinmina sortzen du eta dastatzera etortzen dira asko eta asko. Lau aldiz sartua nintzen finalean eta iaz sari nagusia irabazi nuen. Epaimahaiak usain freskoa eta kolorea nabarmendu zituen.

## - Erlauntzak ere badituzue Olan.. Zer moduzkoa da aurtengo ezti?

Hezetasuna sartu da eztiaren eta horrek kaltetu du.

## - Liztor asiaticoen kalte egin dizue?

Bai. Tranpak jarri ditugu, baina horiekin ez da nahikoa. Bestelako neurriak hartzen ez badira, hemengo erleak gutxituko dira. Horrek esan nahi du ez dela soilik ezti gutxiago produzituko; sagardoaren produkzio zikloan ere ondorioak izango ditu, erleek sagarrondoak polinizatzen dituztelako. Asiaticoen erleak jaten dituzte eta azkar ugaltzen dira.

## Iñaki Bengoetxea, sagardogile



Argazkia: Guilló



Goian, Iñaki Bengoetxea, urrian bilteta egin ondoren sagarrak xehatzeko prestatzen. Ezkerrean, 2012an Gipuzkoako Sagardo Lehiaketan irabazitako txapela eta oroigarriarekin.

## Sagarretik sagardora

Sagarrondoak hautuz landatzen dira: sagar mingotsak, gozo-mingotsak... guztiak ere, bertakoak.

Irailaren erdi aldera hasten da sagardoa egiten, sagarmota desberdinak bilduta (mozoloak, batzuloak, txorisagarrak, goikoetxeak, urtebiak, errexilak, udaremarroiak, oliosagarrak...) eta urriaren amaiera aldera amaitzen da. Sagarraren kalitatea azukre kopuruaren baitan dago. Sagar gazi gehiago izaten da gozo-mingots baino.

Sagarrak xehatu eta beratzen uzten dira 15-24 orduz; horretarako, leun-leun zuktzen dira. Gero, dolarea sagar beratuen mamiz bete eta bertan 4-5 ordutan prentsatzeko, muztioa ateratzeko. Muztioa gordailuetara eramaten da, eta bertan PH eta azukre eta tanino mailak aztertu eta erregulatzen dira, nahi diren mailak lortu arte. Orduan muztioaren tenperatura jaisten da, hartitzen has ez dadin. Gero muztioa 11 kupeletara eramaten da, hartidura (muztioaren azukrea alkohol bihurtzea) gerta dadin; hotza 10-14°C-tan erregulatuz kontrolatzen da prozesu hori. Hiru hilabeteren ondoren, lortutako sagardoa 14°C inguruko tenperaturan botilaratzen da. Sagardoa 10-14°C inguruan kontsumitzen da, likidua hautsiz zerbitzatuta, horrela ez baita galtzen edariak daukan karbonikoa.



Argazkia: Guilló

Goikoetxe motako sagarra.



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa

- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasil Jiu Jitsu



## KALEKO INKESTA

# Zergatik ez da euskara gehiago erabiltzen Irunen ?



## Justi Rodriguez

Alaba txikia zenean euskaraz egiten nion, nire maila kaxkarra bazen ere. Handitu zenean, egia esan, lotsatu egiten nintzen eta hitz egiteari utzi nion. Irunen arazoa da jende askok ez dakiela. Euskaldun gehiago egongo balitz ez dakitenak neurri handiago batean saiatuko lirateke.



## Ramon Pikabea

Ez dut uste euskara gero eta gehiago erabiltzen denik. Nik senideekin egiten dut. Euskaldunek euskaraz egiteko aukera gutxi dituztela uste dut. Nire neska-laguna Sevillakoa da eta ikasi nahi du. Bera kanpotik etorrita izaki ere, prest dago eta hemengo jende asko, ordea, ez.



## David Villalba

Txikitan eskolan ikasi nuen, baina behin ikasketak amaituta ohitura faltagatik eta aukera gutxi nuelako ez nuen ia erabiltzen. Orain nabari dut nire euskara maila kaskarragoa dela eta erraztasun faltarengatik lotsatu egiten naiz. Tabernaria naiz eta gero eta jende gehiagok erabiltzen duela antzematen dut. Ene ustez, dakienak erabiltzen du. Harere, jende gazteari erabaki hori hartzea gehiago kostatzen zaiola esango nuke.



## Marian Sancho

AEKn izena eman dut lehenengo urratsetik ikasten hasteko. Aspaldi ekin nion, baina lan kontuak zirela eta utzi behar izan nuen. Nire bilobengatik deliberatu naiz oraingoan. Badut gaztelaniaz ia hitz egiteko gai ez den bat eta horrek esan ohi dit: euskaraz ikasi behar duzu. Erdaldun elebakar asko dago. Talde batean euskaldunak eta euskaldun ez direnak elkartzen direnean, bada, denak gaztelaniaz aritzen dira. Argi dago hemen giroak ez duela laguntzen.



## Joaquin Labayen

Lana zela eta, ez dut inoiz euskalduntzeko aukerarik izan. Nire iritziz, erabilera oso murrizta da; nik, behinik behin, ez diot hurrei beste inori entzuten. Dakienak erabiltzen duela uste dut. Jendeak dio euskara oso zaila dela.



## Teresa Gonzalez

Nire belaunaldikook ez dugu euskara eskolan ikasteko paradarik izan. Gero, Bilbon lan egin nuen eta han ez zen beharrezkoa inondik inora. Jendeak errazena eta erosoena egiten du, alegia, gaztelaniaz hitz egin. Nire seme-alabak hirueledunak dira (frantsesa, euskara eta gaztelania), baina, egia esan, euskara ez dute erabiltzen. Euskarak aurrera egiteko denbora behar du oraindik.



## La agrícola

J A T E T X E A

Eguneko menuak, asteburukoak, karta, mota guztietako ospakizunak

Alzukaiatz, 1. IRUN Tel: 943 244 118



# Mintzalaguna: euskaraz hitz egin beldurrik gabe

Mintzalaguna egitasmoari esker, aurten ere hainbat irundarrek euskara ikasgelatik kanpo erabili ahal izango dute. Mintzapraktikak egiteko formula arrakastatsua bueltan da.

Irunen ehunka lagun aritu dira, eta ari dira euskara ikasten. Hainbeste urte eta lanen ondoren, horietako askok ez dute noekin hitz egin, edota, beldurrik eraginda, ez dira euskal-geletatik kanpo euskaraz hitz bakar bat ere esatera ausartzen. Eta erabiltzen ez den hizkuntza... Horrenbestez, aurten ere Irungo Udalak Mintzalaguna egitasmoa antolatu du, Irungo euskaltegien laguntzaz.

Euskaraz hitz egin nahi duen horri ("MINTZAKIDEA") euskaldun oso bat ("MINTZALAGUNA") bilatzen zaio, astean behin elkartzeko eta euskaraz aritzeko. Ez dira klaseak, eta mintzalagunak ez dira irakasleak, mintzatzeko lagunak baizik. Mintzakide bezala parte hartzeko gutxieneko maila eskatzen da: B1 mailari dagokiona, alegia.

Parte-hartzaileen zaletasunak, adina eta, batez ere, ordu-tegia kontuan hartuta, hiru, lau edo bost laguneko talde-txoak osatzen dira. Ondoren, taldetxo bakoitzak erabakitzen du zer egin: taberna batean elkar daitezke, edota ibiltzera joan, edota erosketak egin, edota... hau da, berdin dio non, noiz eta zertarako elkartzen diren, baina helburua euskaraz hitz egitea izango da.

## IZENEMATEA

Urriaren 14tik 19ra HAZ/SACen (astelehenetik ostiralera, 8:30-14:00 eta 16:00-19:00, eta larunbatetan 9:30-13:00),



edo [www.irun.org/euskara](http://www.irun.org/euskara) atarian urriaren 20a arte.

Zer egin zure WiFi pertsona ezezagunek manipula ez dezaten?



Informazioaren Segurtasunerako Behatokiak "Etxean haririk gabeko Wifi sarea babesteko gida" argitaratu du. Egoki babesten ez bada ezezagunek gure informazio pribatua eskura dezakete, edo iruzur egin, edo banda-zabalera kontsumitu.

Gida honetako aholkuei jarraiki, ACUBI Bidasoako Kontsumitzaileen Elkarteak eta Irungo KIUB Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak laburki gogora ekarri nahi dituzte gida honek biltzen dituen zenbait gomendio, segurtasun arazoak saihesteko.

- 1.- Zure sarearen izena aldatu eta ezkutatu.
- 2.- WPA edo WPA2 segurtasun protokoloak erabiltzen saiatu, WEPa baino seguruagoak direlako.
- 3.- Lehenetsita dagoen sarearen segurtasun kodea aldatu.
- 4.- Suebaki bat instalatu.
- 5.- Bideratzailea itzali, erabili behar ez denean. Aholku hau sen onekoa eta oso eraginkorra da, gure Wifia manipulatua izan daitekeen ordu kopurua izugarri murrizten duelako.

Neurri hauek hartuz gero gure haririk gabeko sarea modu eraginkorrean babestuko dugu, manipulazioa edo "lapurreta" saihestuz.

## EKINTZA OSAGARRIAK

Asteroko hitzorduaz gain, euskaraz aritzeko aukera gehiago izatearren, ekintza osagarriak antolatzen dira.

### EKINTZAK

- Mendi irteerak, bestelako irteerak (Abbadia, Artikutza, Plaiaundi, Txokolate Museoa, Done Jakue bidea Irunen barrena, Gazta Museoa, Su Eskola, itsasontziz arrantzara, bisita txakolindegi edo sagardotegira...).

### TAILERRAK

- Ardo-dastapena, kanta ikastaroa, dantza, talogintza, aromaterapia, sukaldaritza, antzerkigintza, argazkilaritza...

### BESTELAKOAK

- Bazkariak/afariak (kantu bazkari edo afariak, bertso bazkari edo afariak, afari-meriendak...).
- Kultur emankizunak (hitzaldiak, antzerkiak, ipuin kontalariak...).

## BAKAILAOA DASTA EZAZU





# Donibane Lohitzune - Hondarribia, mugaren bi aldeak lotzen dituen lasterketa

Euskal Herriko maratoi erdiaren XVI. edizioa urriaren 27an izango da. Parte-hartzaileek goizeko 11etan korrika egiteari ekingo diote Donibane Lohitzuneko Thiers Bulebarrean. 21 kilometroko lasterketa honen helmuga, berriz, Hondarribiko erdigunean egongo da.



Urtero legez, Bidasoa eskualdeko korrikalariak egutegiko lasterketa garrantzitsuenetariko bati aurre egingo diote hemendik gutxira. 2.000 korrikalari baino gehiago erakartzen ditu Donibane Lohitzune eta Hondarribia hiriak elkartzen dituen lasterketak. Proba horren erakargarritasun nagusia ibilbidea da; izan ere, "Erlaitza" edo itsas hegiko errepide gorabeheratsu eta aldi berean zoragarria zeharkatzeko aukera dute korrikalariak. Horretaz gain, Hendaia eta Irun zeharkatzen dituzte, bai eta Hondarribiko erdigunea ere.

Lasterketan parte hartu nahi dutenek oraindik garaiz dabilta. Urriaren 25era arte posible izango da web orriaren bidez ([www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)) izena ematea. 30 euroko kostua izango du. Dortsalei dagokienez, txipekin batera entregatuko dira Hondarribiko kiroldegian, honako ordutegi honetan: urriaren 23tik 25era arratsaldeko 18:30etik

20:30era, eta urriaren 26an 10:00etatik 14:00tara eta 16:00etatik 20:30era. Eskualdeaz kanpotik datozen korrikalariak, berriz, Hondarribiko helmugan jaso ahal izango dituzte dortsalak, 27an bertan. Ordutegia 8:00etatik 8:50era arte izango da.

Bestalde, antolakuntzak autobusak jarriko ditu atletak Hondarribitik Donibane Lohitzuneko irteera puntura eramateko. Ibilbidearen prezioa 3 eurokoa izango da; irteera orduak, berriz, 9:00etan, 9:30ean eta 10:00etan izango dira, Yola Berri taberna ondotik. Lekuak izenematearen ordenaren arabera erabakiko dira.

Lasterketa amaitzean Donibane Lohitzunera itzuli behar duten atletengan ere pentsatu dute antolakuntzakoek. Hori dela eta, sari-ematearen ondoren, 14:00ak aldera, Hondarribitik autobus bat aterako da. Autobusa hartu ahal izateko, izena emateko garaian adierazi beharko dute korrikalariak.



## lazko markak

2012ko edizioan Aimad Bouzique izan zen garaile gizonezkoetan, 1:10:12ko denborarekin. Bederatzi segundu gerago iritsi zen helmugara Lionel Petriarcq baionarra, eta hirugarren postua Aritz Kortabarria gipuzkoarrarentzat izan zen, 1:12:11ko denborarekin. Nahiz eta oso gogor hasi, 7. kilometrotik aurrera indarra galdu eta 9. kilometrotik aurrera hirugarren joan zen. Emakumezkoetan, berriz, Ana Casares izan zen garaile, 1:19:52ko denborarekin. Erritmo egokia mantenduz eta inongo estrategiarik gabe, korrikalariak lehendabiziko postua lortu zuen. Haren atzetik, Claudia Behobide hondarribitarra eta Elena Ugena madrildarra iritsi ziren helmugara. Aurtengo Donibane Lohitzune - Hondarribia lasterketan munduko zortetik onena opa diegu Bidasoa eskualdeko korrikalariak, aurtun sari nagusia gurean gera dadin.





Ezkerretik hasita, Miren Altuna eta Lara Monsalve entrenatzaileak ikasle taldearekin Artaleku kiroldegiko pistan.



Ayamendi Klubeko lau gimnasta, ariketa bat egiten.

## Ayamendi Kluba: balioetan oinarritutako gimnasia erritmikoa

2000. urtean eman zituen lehendabiziko urratsak Ayamendi Gimnasia Erritmikoko Klubak. Harrez geroztik, Bidasoa eskualdeko gimnasta ugari hezi eta prestatu dituzte talde horretako entrenatzaileek. Gaur egun, 80 bat gimnastak osatzen dute taldea. Garaipenen gainera, gimnastei diziplina eta laguntasuna bezalako balioak irakastea da helburu nagusia.

Artalekuko kiroldegiko pistan uztaiak, pilotak eta kolorezko zintak nagusi izaten dira Ayamendi Klubeko nesken entrenamenduetan. 3 eta 15 urte bitarteko gaztetxo hauek primeran erabili eta menperatzen dituzte aparatu guztiak. Hala ere, kirol honetan bikaintasuna lortzea lanordu askoren emaitza da. "Asteaz zehar 7 bat ordu entrenatzen dugu, kirol oso zorrotza delako. Dena den, behin probatuz gero ezin duzu utzi, oso dibertigarria eta dinamikoa baita" dio Nerea Mendoza irribarretsu batek. Orain dela 6 urte hasi zen gaztetxo honen ibilbidea

gimnasia erritmikoaren munduan. Makurtuta zebilela esan ohi zion amak eta, akats hori konpontzeko asmoz, Ayamendi Klubean izena eman zuen. "Gaur egun oso tente nabil eta, akatsa konpontzeaz gain, nire diziplina eta gorputzaren koordinazioa lantzen ikasi dut". Ane Martin taldekideak ere gauza ugari ikasi ditu klubean hasi zenetik, eta progresio hori gora doa. "Laguntasunak eta elkartasunak duten garrantzia ikasi dut; izan ere, taldeko dinamiketan ezinbestekoak dira".

Futbola, saskibaloia edota eskubaloia bezalako kirolak nagusi diren hiri batean,

zaila izaten da tarte bat egitea. Hala ere, Ayamendi Klubekoek, ahoz-ahokoari esker, lortu egin dute. Miren Altuna entrenatzailearentzat beren potentzialtasun nagusia kirol osoa eskaintzea da: "gorputzaz gain, adimena, koordinazioa, psikomotritzitatea eta entzumen-gaitasun musikalak lantzen dira".

Bestalde, kirol honi askotan atxikitu izan zaion lehiakortasun ospearean kontra egin izan du Ayamendi Klubak. Lara Monsalve entrenatzaileak argi uzten du: "gure helburu nagusia da ikasleek ikasitakoa erakustea eta ondo pasatzea, eta horrela jakinarazten diegu. Urte osoan zehar lana ondo egiten bada, emaitza ona izaten da". Horretaz gain, badute gaur egun kirol taldeek aurkitzen duten zailtasun nagusietako bat: umeak konprometitzea. Honen aurrean, Miren Altunaren taldeak "kirol polita eta atsegina" eskaintzen du, non diziplina, laguntasuna eta taldekidetasuna bezalako balioak nagusi diren. Gainera, gorputza eta bizitasuna asko lantzen dira.

### Informazio gehigarria:

[www.clubayamendi.com](http://www.clubayamendi.com)

Telefonoa: 665.618.162

### Eta mutilak?

Nahiz eta askotan gimnasia erritmikoaren mundua neskenentzat bakarrik dela aditzera eman, mutilek ere lekua badute. Mirenek eta Larak mutilak izan dituzte taldean, baina jendearen iritzien ondorioz kirola uztera derrigortuta ikusi ohi dute beren burua. "Egia da neska ugari daudela, baina ez da neskenentzat bakarrik pentsatutako kirola" dio Lara Monsalvek. "Mutilek indar handia dute aparatuak airera jaurtitzeko orduan, baita jasotzerakoan ere" gaineratu du Miren Altuna entrenatzaileak. Beraz, Bidasoa eskualdeko neskez gain, mutilek ere atea irekia dute gimnasia erritmikoaren mundua probatu nahi izanez gero.

### Mugaz gairik aholkularitza

**MyL mugan**  
aholkulariak

**Ficoba**  
Iparralde  
hiribidea, 43.  
IRUN  
t 943 537 720  
f 943 116 014  
m 649 014 096  
[www.mylmugan.com](http://www.mylmugan.com)



**T. 678 617 907**  
[mgrotulos@gmail.com](mailto:mgrotulos@gmail.com)  
**Pedro Manuel**  
Aristegui kalea, 12  
IRUN





Goian, Cycling saio bat. Eskuinean, Zumba. Behean, Shirai maisua Kirolako arte martzialetako talde batekin.



Publierreportajea

## KIROLA GIMNASIOA, jarduera fisikoa profesionalen eskutik

Irungo Kirola Gimnasioak jarduera eskaintza zabala prestatu du hasi berria den ikasturte honetarako. Lehen mailako zortzi profesionalak irakasle-taldea osatzen dute, Eva Correaren eta Aitor Berrosperen zuzendaritzapean.

Osasunaren alorreko adituek kirola egitearen garrantzia azpimarratzen dute behin eta berriro. Kirola Gimnasioko zuzendariak bertatik bertara ikusten dituzte jarduera fisikoak dakartzan onurak. Eva Correak eta Aitor Berrospek bezeroei zer moduz sentitzen diren galdegiten dietenean erantzun bakarra jasotzen dute: "Kirola egiten dudanez geroztik hobeto nago, eta gainera nire

itxura fisikoak ere hobera egin du".

Jarduera fisikoa egitea ala ez erabakitzeko orduan "beldurrak edo lotsak ez du gaur egun oztopo bat izan behar", Aitorren iritziz. "Gimnasioan nork bere ahalmenari eta beharrei egokitutako eskaintza topatuko du. Gainera, beti irakasleen laguntza ere beti izango du".

### Aurten, berrikuntzak

Helduei nahiz haurrei zuzendutako ohiko ekintzez gain, aurten bada berrikuntza bat: Zumba da, dantza eta jarduera aerobikoa uztartzen dituen. Dagoeneko sekulako arrakasta izan du. "Oso dibertigarria da eta taldeak segituan osatu ditugu", dio Aitorrek. Adin txikikoen artean kirola sustatu aldera, aurten hileko kuotan % 40ko beherapena izango dute.

Instalazioei dagokienez, Kirola Gimnasioak cycling areto bat dauka, erabilera anitzetarako bi areto eta muskulazio zein ariketa kardiobaskularrak egiteko beste bi. Arte martzialetarako tamiak, pilotalekuak eta aldageletako saunak azpiegituren eskaintza osatzen dute.

### Eskaintza

- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brazilian Jiu Jitsu

### Ordutegia:

- Asteleheneretik ostiralera: 9:00-22:00.
- Larunbatetan, igandetan eta jai egunetan: 9:00-13:00.

**Helbidea:** Arturo Campion, 4.  
Belasko eraikina. 943 629867

# GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

[www.gbeventos.es](http://www.gbeventos.es)

Enpresa ekitaldiak

Erakunde ekitaldiak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak

Ezkontzak

Urteurrenak

Oscar Portugués  
+ DJ Sicario

Ekitaldiak zuk nahi duzun erara  
Zer behar duzu?

[WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM](http://WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM)



## Dunboa LH 3

# Oiasso Museoa



Dunboako 3. A eta 3. Bko ikasleak Oiasso Museora joan ginen. Sarreran, enboretz egindako gizon baten eskultura batek, Robert izenekoak, ongietorria eman zigun. Bi monitorerekin egon ginen. Batekin jokoak egin genituen. Bitartean, bestearekin museoa ikusi zuten. Museoa oso interesgarria izan zen, eta joko asko zeudenez, oso ondo pasa genuen.



# Jostamendi



[www.jostamendi.com](http://www.jostamendi.com)

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

JOSTAILU GUZTIAK:  
MODAKOAK ETA KLASIKOAK  
SALNEURRI MERKEENAK

Prim. 59. Tel: 943 455300 Donostia  
Letxunborro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
- Paseatzeko sillitak
- Sehaskak
- Haur kotxeak

GIPUZKOAKO  
ERAKUSKETARIK HANDIENA

Easo, 51. Tel: 943 470244 Donostia  
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



Zure jaioberria  
zaintzen dugu



## Txingudi BHI

## PASSION FOR KNOWLEDGE



Argazkian, ezkerretik hasita, Aitor Gorrotxategi, Nahia Duenñas, Jocelyn Bell Burnell eta Amaia Gorria

Irailaren 30ean, Txingudi BHIko 4. mailako hiru ikasle Paz García Fisika-Kimika iraslearekin Eureka museora joan ginen. Han goi mailako hiru fisikoei, Juan Ignacio Cirac-ek (Manresa 1965), Jocelyn Bell Burnell-ek (Belfast, 1943) eta Claude Cohen-Tannoudji Nobel sariak (Constantine, 1933) hitzaldi bat eskaini ziguten. Goizeko 10:00ak aldera hasi zen saioa eta bi zatitan banatu zen: lehenengo atalean, fisiko bakoitzak bere bizitzari buruz hitz egin zigun, ondoren hamaiketako txikia, eta, azkenean, saioarekin jarraitu genuen. Azken atal honetan, ikastetxe bakoitzak bidalitako galderak egin zitzaizkien eta 13:30ak aldera bukatu zen guztia.

Oso interesgarria suertatu zen eta oso goiz ona pasa genuen zientifiko horiekin. Pedro Miguel Etxenike antolatzaileak esan zuen bezala, "izututa sartu eta gogotsu atera ginen".

## MARKA PERTSONALA 2.0



Marka pertsonala, Personal Branding ingelesez, norbera marka komertzial baten modura aurkezteko era bat da; hau da, nork bere burua landu, sustatu eta babestu beharreko zerbait gisa ulertzeko era.

Kontzeptu hau lana bilatzeko bidetzat sortu zen.

Gaur egungo krisi garaioan puri-puritan dago; izan ere, nork bere burua agerraraztea profesionalki hobetzeko estrategia bat da, helburua lana bila-

tzea dela, enpresan gora egitea dela, bezeroak eskuratzea dela.

Marka pertsonala elkar konektatutako elementu asko eta askoren baitan dagoen arren, haietako batzuk begien bistakoak direnez, erraz antzeman eta kontrola daitezke.

Adibidez: zer ateratzen da zure izen-deiturak Googlen idatziz gero? Bada-kizu emaitza horietan eragin dezakezula?

Hona hemen zenbait aholku lagungarri, zure marka pertsonala kudea dezazun:

1. Erregistra ezazu domeinu bat zure izen-deituraz, eta zeure burua profesionalki aurkezteko web bat sor ezazu. Horrela, baten batek bilatzen bazaitu, berehala aurkitu zaitu.

2. Erabil itzazu sare sozialak (batez ere mugatu gabeko helmenaz edo pribazitateaz idaztekoak), balizko errekrutatzaile bati zure nortasunaren alderdirik erakargarriena erakustearren. Pertsonala hautatzeko enpresak gaur egun oso iaioak dira hautagai baten profila osatzen.

3. Errazago da Interneten argitalpen eta komentario mota batzuk saihestea gerora ezabatzen ahalegintzea baino. Kontuan hartu sareratzten duzuna edozeinek ikus dezakeela.

4. Ez kritikatu inoiz nagusiak, bezeroak edo lankideak. Zure etorkizuneko nagusi-bezero-lankideek pentsa dezakete gauza bera egingo duzula beraietaz.

Bai, halako aholkuek aspergarriago egiten dute sare sozialen erabilera; baina lehentasunak argi eta garbi eduki behar dira, eta profesionalki aurrera egiteak sakrifizioak dakartza.

Enrique Dans blogari ospetsu eta negozio-prozesuetan doktoreak dioten bezala: *Batzuek oraindik uste dute CVa idatzi, inprimatu eta postaz bidaltzen den zerbait dela. EZ, zure CVa sarean dago, eta kontratatu nahi zaituena edo aukera profesionalik eman nahi dizuna sarean sartuko da zer egin duzun, zertaz idatzi duzun, sarean egin duzun marka miatzera. Hortxe duzu, bada, benetan merezi dizun inbertsioa.*

**Pablo Moratinos**

Marketing online-aholkularia  
3yMedia Comunicación Digital



zure enpresari  
internetetik zabalitzen  
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net



# Irunabar eta Kabigorri bateginik bertso-gauak eskaintzeko

Abegi polita egin zioten irundarrek Kabigorri elkarteak eta Irunabar Bertsoaren Bilguneak antolatu zuten lehen bertso-gauari. Ekimen honek jarraipena izango du, hilabete orotako lehen ostegunetan Kabigorriko ateak zabalik egongo baitira Bidasoako eta ingurueta bertsolariak entzuteko.



Irunabar Bertsoaren Bilgunean aspaldiko partez lanean ari dira, bertso eskola jarduera nagusietako bat izaki. Orainsu, urrats berri bat egin du, Kabigorri Ateneoarekin eskutik oratuta gure bailaran bertsogintzari eta euskalgintzari bultzada handia ematea jomuga duena. Irunek eta eskualdeak "behar duena bertsoekin zita finkoa bat da, urtetan mantenduko dena". Halaxe iragarri zituen Egoitz Zelaia hendaier bertsolariak urritik aurrera hileko lehen ostegunetan burutuko diren bertso-gauak. Lehena Peña kaleko Kabigorriren ostatuan egin zen, urriaren 3an, eta bertan izango dira hemendik aurrerakoak ere, 19:30ean hasita. Zelaia zehaztu zuenez, "ordubeteko edo ordu eta erdiko saioak izango dira, gutxi gorabehera, eta bertsolariak, ingurukoak: Lapurdi, Bidasoako, Malerreka, Donostialdea...". Irunabar Elkarteko norbait gai-jartzaile arituko da. Ekitaldiak doan dira.

## Lehenengo saioa

Urriaren 3ko saioan bertsoan jardun zuten Abel Zabala irundarrak, Eneritz Zabaleta baionarrak, Eneko Fernandez lesakarrak eta Alaia Martin oiartzuarrak. Irundarra izan ezik, beste hiruak Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko parte-hartzaile dira. Gai-jartzaile lanak Egoitz Zelaia egin zituen.

Kabigorriko ostaturia bete zela ikusirik, antolatzaileak oso kontent zeuden ekitaldiak izan duen harrerarekin. Asmoa "eskaintza apala baina erakargarria egitea" izan dela esan zuen Zelaia. Bistan denez, asmatu dutela esan liteke. Aurrera jarraitzeko "oso animatuta" daude, eta dagoeneko hurrengo hitzordua prestatzen hasiak dira.

**Egoitz Zelaia gai-jartzailea, eta haren atzean, bertsolariak: Eneko Fernandez (Lesaka), Eneritz Zabaleta (Baiona), Alaia Martin (Oiartzun) eta Abel Zabala (Irun).**

## Puntuari erantzunak

Eneritz Zabaletak Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartzen du. Hortik abiatuz, beste hiru bertsolariak puntu bana jarri zioten.

### Eneko

Eneritz, finalean ikusten al nauzu?

### Eneritz

Oholtzarako txartela garestia da, aizu; beraz, Eneko lagun, egidazu kasu: Ikuslearen txartela erosi ezazu

### Alaia

Poto egingo duzula badut bihozkada

### Eneritz

Hori bera dugunak, Martin, asko gara; baina alferrikan dugu bihotzean dardara eta kantatuko dut onenen gisara

### Abel

Potto onen mozkortzeko arriskua dago

### Eneritz

Nahiz eta bodega batean sartzea nahiago bertsoan egin behar da bota eta trago errimekin mozkortzen ni ohituta nago

## Irunabar Bertso Eskola



### 18 URTE BITARTEKOENTZAT:

Hasiberri nahiz aurrez arituentzako taldea

**Lekua:** Irungo EKTn (Larretxipi kalea, 12)

**Noiz:** Astelehenero, 18:30etik 20:00etara.

Bertso eskolan izena emateko aukera ikasturte osoan zabalik egongo da.

Izen ematea DOHAINIK da.

### 18 URTEK GORAKOENTZAT:

Hasiberri nahiz aurrez arituentzako taldea.

### Noiz eta non:

- Asteartetan 18:00etatik 19:30era Urdanibia

plazako Udal Euskaltegian

- Ostegunetan: Jaitzubian.

Bertso eskolan izena emateko aukera ikasturte osoan zabalik egongo da.

Izen ematea DOHAINIK da.

**Zalantzak:** [irunabar@gmail.com](mailto:irunabar@gmail.com) eta

685 72 75 39 telefono zenbakian.

Jardueraren inguruko bideoa:

[www.youtube.com/watch?v=fIO7qPZbEIM](http://www.youtube.com/watch?v=fIO7qPZbEIM)





## Lehiaketak

### - EUSKAL TXISTE GRAFIKOEN LEHIAKETA.

Antolatzailea: Hondarribiko Udala.

Edonork parte har dezake. Adinaren arabera hiru kategorioa.

Epea: urriak 31.

Lanak aurkezteko tokia: Udal Euskara Zerbitzuan.

XXII. EUSKAL  
LEHIAKETA  
TXISTE  
GRAFIKOEN



### - "GLORIA FUERTES" GAZTE-ENTZAKO POESIA SARIA.

Deialdigilea: Gloria Fuertes Fundazioa

Baldintzak:

- 16 eta 25 urte bitarte.

- Hizkuntza: gaztelania

Saria: 300 €.

Epea: Abenduak 31

Informazioa:

[www.gloriafuertes.org](http://www.gloriafuertes.org)

### - IRUNGO GAZTE BIDEOAREN LEHIAKETA.

Parte-hartzaileei zuzenean jakinaraziko zaie sailen bate-

rako hautatuak izan diren, eta azaroaren 4an argitaratuko da zerrenda [www.irun.org](http://www.irun.org) webean.



## Bekak

### - ARTXIBISTIKA, DOKUMENTAZIO ETA BIBLIOTEKONOMIA prestakuntzarako 15 beka Senatuan.

Baldintzak:

- Diplomatura edo Lizentzia Bibliotekonomian eta Doku-



mentazioan, edo Artxibistikaren, Dokumentazioaren nahiz Bibliotekonomiaren alorretan gutxienez 200 orduko ikasketak izatea.

- 1986ko urtarrilaren 1etik ondoren jaio izana.

Iraupena: urtebete.

Hileko zenbatekoa: 800 €.

EPEA: AZAROAK 3.



## Lana

- **ELURRAREN KANPAINA HASIDA.** Adi egoteko, honako esteka hau ez galdu!

[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)

**CINEBOX MENDIBILEK** eta OCINE Txingudik bat egin dute Zinemaren jaiarekin.

Goza ezazu zineaz

2,90 €ren truke!

Urriaren 21etik 23ra.

## Merkatarientzat euskara ikastaroa

Irungo AEKk merkataritzako euskara ikastaroa antolatu du.

Maila: 1. urratsa.

Egunak: Astelehenetan eta asteazkenetan 13:30etik 15:30era.

Hasiera eguna: Urriak 28.

Diruz laguntza: % 50 (+-)

Prezioa: 200 €

943 628834 [irun@aek.org](mailto:irun@aek.org)

**Legia kalea (Kale Nagusiaren paraleloa)**



## Enplegua bilatzeko GIZARTE SAREN ASTEA

### ASTEARTEA, URRIAK 15

9.00-13.00 // El Espazio Tailerra: Twitter eta enpleguaren bilaketa aktiboa. Hasiberrientzat.

16.00-18.00 // KZ Gunea Tailerra: Facebook

### ASTEAZKENA, URRIAK 16

9.00-13.00 // El Espazio Tailerra: Twitter eta enpleguaren bilaketa aktiboa. Aurreratuentzat.

16.00-18.00 // KZ Gunea Tailerra: Facebook

### OSTEGUNA, URRIAK 17

9.00-13.00 // El Espazio Tailerra: LinkedIn eta enpleguaren bilaketa aktiboa.

16.00-18.00 // KZ Gunea Tailerra: Twitter

### OSTIRALA, URRIAK 18

9.00-13.00 // El Espazio



Tailerra: Zure CV-a nabarmentzeko eta lana bilatzeko.

Multimedia Tresnak eta Internet sareak (bloga, youtube, Infografia, Pinterest...)

16.00-18.00 // KZ Gunea Tailerra: Twitter

## Ikastaroak: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)

- Epea irekita duten ikastaroak

- Hizkuntzak

- Ikasleak (aukera libreko kredituak lortzeko)

- Boluntariotza, Astialdiko Hezitzaileak, Hegaldi Eskola...

- Aisia eta denbora libre.

- Kirolak

- Prestakuntza arautua

- Nautika Tituluak:

Azterketen deialdia.



Akademiak eta Eskolak :

- GAIA aukeratu eta gal-

detu

- Ikastaroak antolatzen dituzten erakundeak.

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

## Irunero non eskura dezaket?

### San Juan

Gaztelumendi  
Manolo  
Sargia  
Udal Liburutegia  
Gazte Informazio  
Bulegoa  
Arano  
Corner  
Fotokop

### Nafarroa hiribidea

Erka material  
elektrikoa  
Kutxa  
Ogi Berri  
Hawai  
Erauskin

### Santiago

Aguirre  
Txingudiko  
Zerbitzuak

Toma Pan y Moja  
Haizea  
Swing

### Urdanibia plaza

Migel  
Ospitale zaharra  
Euskaltegia  
Euskadiko Kutxa  
Eskina  
Lasa harategia

### Dunboa/Palmera -

**Montero/Arbes**  
Osasun Zentroa  
Tahona  
Zura  
Anetxe  
La Agricola  
Amalen paper-denda  
Biribil

### Behobia/Azken

### Portu

Azken Portu  
kiroldegia  
Ogi Berri  
Hawai  
Hizkuntza Eskola  
Eguneko zentroa  
Kuttuna  
hautzaindegia

### Kolon ibilbidea eta inguruak

Cadillon Hertz Klinika  
Brasil gozotegia  
Ogi Berri (Kolon)  
Ciaboga  
BBVA  
Kutxa  
Anbulatorioa  
Artaleku kiroldegia  
Virginia kafetegia  
Eduerne kafetegia

### Erauskin

(Luis Mariano)  
Sirimiri  
Turismo Bulegoa  
SAC-HAZ  
Real Union taberna  
Gaudí  
Mendibil ardotea  
Merkairun  
Narrea kafetegia  
Jaiberri  
Luis Mariano  
pentsiodunen etxea  
Hawaii  
Ketan  
Santander bankua  
Solbes  
Oskarbi  
Kutxa  
Euskadiko Kutxa  
Peinart ileapaindegia

### Pio XII

La Tahona  
Ñ kafetegia  
Ogi Berri  
Alvaro paper-denda  
Erauskin

### San Migel

Tabisa  
Caser egoitza  
Jaizibea okindegia  
Senosiain harategia  
Dumboa fruta-denda  
Uranzu azoka  
Gizarte  
Segurantzako  
Institutua  
LANBIDE  
BBVA  
Santander bankua  
Dani urdaitegia  
Erauskin

### Sabadell

Euskadiko Kutxa  
Kutxa  
Sotero taberna  
Baztan taberna  
Ogi Berri-Ogitxu  
Aguirre  
Adriana Barrios  
ileapaindegia

### Antzaran

Picking Pack  
Rosi kioskoa  
Amantegui Hertz  
Klinika

### Anaka

El Espazio  
Kutxa  
Mariño  
Ogi Berri  
Anaka okindegia  
Washington taberna

### Jaizkibel

janari-denda  
Pablo harategia  
Anaka Berri erretegia  
Covirán Anaka

### Puiana

Tahona  
Puiana taberna  
Ospitalea  
Endanea

### Larreandi

Larrarte harategia  
Toma Pan y Moja  
Pedro arraindegia

### Elizatxo

Martindozenea  
gaztelekua

**Ikasturtean zehar, Irungo ikastetxe guztietan**



**Urriaren 4tik 18ra****Erakusketa****Irun Factoryn**

"Ilustratuak" izeneko erakusketa kolektiboan artista hauek beren lanak erakutsiko dituzte: Jana Lottenburger, Inwoko, Sara Morante, Alberto Martin Curto eta Unai Zoco.

Helbidea: J. A. Loidi, 8.

**Urriaren 17an****Hitzaldia****Ikust-Alaia****liburutegian**

19:30ean, "Jean Jaques Rousseau y la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País". Hizlaria: Alfredo Tamayo Ayestaran.

**Urriaren 18tik****azaroaren 10era****Erakusketa****Amaia KZn**

"Trenbidearen 150 urteak Irunen" izenburuko erakusketa.

**Urriaren 18an****Poesia tertuliak****Ikust-Alaian**

17:30ean, Vladimir Holan, Jesus Rodriguezen eskutik

**Urriaren 19an****Mikologia irteera****Aiako Harrira**

Irungo Udal Ingurumen Zerbitzuak eta Behemendi Landa Garapenerako Elkar-  
teak perretxikoak ezagutzeko irteera antolatu dute.

Azalpenak: Aranzadi Zientzia Elkarteko mikologo bat.

Topatzeko tokia eta ordua: 9:00etan Lapurriturriko informazio puntuan.

Izenematea: urriaren 17 arte. Plaza kopurua: 30

**Urriaren 19an****Kontzertua****Ficoban**

20:00etan, Irun Zuzenean egitarauaren barruan, honako talde hauek parte hartuko dute: Roy Loney & Señor No, Barrence Whitfield & Savages, AZ/DZ.

**Urriaren 20an****Berregintza historikoa****Geltokiko kalean**

11:30etik aurrera, Berregintza Historikoaren Jardunaldia, trenbidearen 150. urteurrena dela eta.

**Urriaren 20an****Pailazoak****Amaia KZn**

17:00etan, Poxpolo eta Konpainia pailazoen saioa. Sarrera: 4 euro, Kutxaneten eta antzokiko leihatillean.

**Urriaren 21ean****Liburuforuma****Ikust-Alaian**

19:00etan, Lina Meruaneren "Sangre en el ojo". Zuzendaria: Mertxe Tranche.

**Urriaren 22an****Liburutegiaren eguna****Luis Marianon**

17:30ean, animazio ekintzak Luis Marianoko lorategietan.

**Urriaren 24an****Hitzaldia Ikust-Alaia****liburutegian**

19:30ean, Mertxe Tranche "La frontera de las ideas" gaiari buruz mintzatuko da hitzaldi batean.

**Urriaren 25ean****Zinema****Amaia KZn**

20:00etan, Cinema Paradiso Zine Klubak "Las sesiones" pelikula proiektatuko du.

**Urriaren 29an****Liburutegiaren eguna****Ikust-Alaian**

19:00etan, Irakurketa Kluba.



## Txikimusika

**Noiz:** Urriak 19

**Non:** Mendibil parkean

**Ordua:** 12:00etan

**POP JAI** honen helburua pop musika haurrengana hurbiltzea da. Zuzeneko musika saioa + familiarteko piknika.

**JOSEBA IRAZOKI (Bera):** ahotsa, gitarra, harmonika, bonboa eta hamaika tramankulu.

**JUNE Y LOS SOBRENATURALES (Iruñea):** ahotsa, baxua, bateria, gitarra.

**DON LOOPE (Guadalajara, MX - Irun):** DJ

Idoia Estornesen "Cómo pudo pasarnos esto". Zuzendaria: Mertxe Tranche.

**Urriaren 30etik****azaroaren 10era****Erakusketa****Diasso Museoa**

Quique Escalanteren oroime-  
nezko argazki erakusketa. Antolatzailea: Alarde Tradizionalaren Batzordea.

**Urriaren 31n****Literatur mintegia****Ikust-Alaian**

18:00etan, "Mitchell Leisen, un comediante de lujo". Zuz: Carlos de Agustin.

**Urriaren 31ra arte****Erakusketa****Atrezzo dendan**

Atrezzo dekorazio denda (Geltokiko kalea, 13), Frank Emilio Martinez Bencomoren margo surrealista erakusketa.

**Urriaren 21etik****azaroaren 20ra****Erakusketa****Irun Factoryn**

"Komikia, manga eta konpainia: komikiaren alemaniar kultura berria" erakusketa.

## DONE JAKUE ASTEA TXINGUDIN

### EGITARAUA

**URRIAK 14-27**

Laboral Kutxan, Angel Gonzalezen argazki erakusketa Santiago Bideei buruz.

**URRIAK 16**

Amaia KZn, 19:00etan, film proiektzioa: "Te llevaré al fin del mundo".

**URRIAK 17**

Amaia KZn, 19:00etan, ikus-entzunezkoak: "El camino hacia la meta. Santiago" eta "El Camino de Santiago, mágica experiencia".

**URRIAK 18**

Amaia KZn, 19:00etan, ikus-entzunezkoa: "Los caminos inventados y esoterías jacobean", Luis Toribiok aurkeztua.

**URRIAK 20**

Santiagoko zubitik, 9:30ean, ibilbide gidatua Luis Toribioren eskutik, Santiago bidearekin harremana duten leku esanguratsuak ezagutzeko.

## Zorionak, Xabi

Datorren urriaren 18an gure Xabik 8 urte beteko ditu. **ZORIONAK**, bihotzez, aita, ama eta Jonen partez.







# Aldatu zure bainera dutxa batengatik

*Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa*

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.

**Guztia 2 egunetan!**

*Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe*

Pelegrin de Uranzu, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun  
943 615 184 - 687 572 920  
bainu.irun@gmail.com - www.bainu.eu

Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia  
943 561 652

